

AURREZPEN ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOARI BURUZKO JARDUNALDI TEKNIKOAK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAN

Posted on 23/05/2023 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Eficiencia energética](#), [Energia aurrezteak](#), [Soluciones energéticas](#)

Bizkaiko Foru Aldundiak bi jardunaldi tekniko egin ditu, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, NAIDERen eskutik, BFAko langileei energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko neurrien eta energia berriztagarrien ezagutza helarazteko, energia-kontsumoa murrizteko, egungo legediaren baldintzak ezagutzeko eta irtenbide energetiko jasangarri berriak bilatzeko.

Jardunaldi horietan Aldundiko hainbat sailtako 30 langilek baino gehiagok hartu dute parte, besteak beste, mantentze-lanetako arduradunek, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko teknikariek eta Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko teknikariek.

